Kultura Communication Desarrollo KCD ONGD

2025eko MEMORIA
MEMORIA 2025

KCD
Kultura Communication Desarrollo
ONGD
ENKARA PUBLIKOKO ELKARTEA - ENTIDAD DE UTILIDAD PÚBLICA
www.kcd-ongd.org

CINE
INVISIBLE
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2026 BILBAO

www.kcd-ongd.org

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE / ONGD

Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

CP 48902 - Barakaldo - Bizkaia

Kontaktua / Contacto

Telefonoa / Teléfono: 94 602 46 68

E-mail: info@kcd-ongd.org

https://www.kcd-ongd.org/

2025eko lantaldea / Equipo de trabajo en 2025

Zuzendaritza Batzordea / Junta directiva:

Rosa María Basauri Herrero (Presidentea / Presidenta),

Yolanda Barco Ramos (Presidenteordea / Vicepresidenta),

Leire Pascual Basauri (Idazkaria / Secretaria),

Pablo Ruiz Sal (Diruzaina / Tesorero).

Zuzendaritza / Dirección: Juan Carlos Vázquez Velasco

Proiektuak / Proyectos: Joseba Villa González, Ainhoa Pérez-Arróspide Navallas, Anabell Carrasco Cedeño, Amaia Laforga

Administrazioa / Administración: Leire Pascual Basauri

Produkzioa / Producción: Gorka López Arantzamendi

2025eko praktika-taldea / Equipo de prácticas 2025

Nerea Bargos Bouzas, Alba Doctor Hernández, Aitor Zabala de Castro

IFK / CIF: G95550943

Edizioa / Edita: KCD ONGD

Diseinua / Diseño: Binari Comunicación

Azaleko Irudia / Imagen de portada: 2025eko 17. FICI Bilbaoren amaierako ekitaldia / Gala de Clausura del 17º FICI Bilbao 2025

AURKIBIDEA
ÍNDICE



NOR GARA? **4**
¿QUIÉNES SOMOS? 40

EUSKADIN GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZA-EKINTZAK **10**
ACCIONES DE EDUCACIÓN PARA LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL EN EUSKADI 46

KANPOKO GARAPENERAKO LANKIDETZA-EKINTZAK **28**
ACCIONES DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO EN EL EXTERIOR 64

ANEXOA: 2025eko KONTU-BALANTZE LABURTUA **76**
ANEXO: BALANCE DE CUENTAS ABREVIADO 2025 76

1 NOR **GARA?**

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE garapenerako gobernuz kanpoko erakunde bat da. Eusko Jaurlaritzak onura publikoko elkarte izendatu zuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago, AS/B/14091/2008 zenbakiarekin.

KCD GGKE elkarte independente eta laiko bat da, **giza garapen bidezko eta jasangarria lortzeko** asmoarekin sortua. Helburu horretara iristeko, komunikazioa baliatzen du hainbat lan-arlo elkarri lotzeko tresna gisa, hala nola **gizarte-eraldaketarako hezkuntza**, **eragin politikoa** eta **nazioarteko lankidetza**. KCD GGKEk **herritar kritikoak sortu** nahi ditu bere estrategiaren bidez; **berdintasunaren alde egiten duten herritarrak, aniztasuna errespetatzen dutenak eta sozialki konprometituak**.

KCD GGKEk jakin badaki sinergiak eta aliantzak behar direla ibilbide hori egiteko. Horregatik, **Euskadiko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GGKE-en) Koordinakundeko** kide da 2014az geroztik. 2015ean, Garapen Jasangarrirako **2030 Agendaren** eta Nazio Batuek proposatutako 17 helburuen aldeko konpromisoa hartu zuen, eta, 2017tik aurrera, **(H)abian 2030** Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiaren partaide da. Era berean, **Hegoalde Globaleko kontrako alderdiekin lankidetzan aritzearen aldeko apustua** egin du, gizartea eraldatzea eta bidegabekerien aurka egitea baita haren nahia.

MISIOA

KCD GGKEren MISIOA komunikazioaren eta kulturaren bidez giza garapen jasangarria, kulturartekoa eta bidezkoa sustatzea da.

IKUSPEGIA

GGKE bat den aldetik, nazioarteko erreferentzia izan nahi du kultura eta komunikazioa eraldaketa-estrategia gisa erabiltzeko zereginean, kulturarteko giza garapen zuzena eta jasangarria lortze aldera.

KCD GGKE-REN PRINTZIPIOAK

1. Herritar globalak eta gizartearekin konprometituak.
2. Komunikazio demokratikoa, askotarikoa eta plurala.
3. Tradizionalki baztertuta egon diren kolektiboen eta komunitateen integrazioa.
4. Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.
5. Aniztasun kulturala, etnikoa, erlijiosoa, politikoa, funtzionala, soziala, sexuala eta genero-identitateari lotutakoa errespetatzea.
6. Giza eskubide indibidualak eta kolektiboak.
7. Naturarekiko harreman jasangarria.
8. Bake positiboaren kultura.
9. Pertsonen eta herrien arteko berdintasun-harremanak.
10. Migrazio-prozesuen humanizazioa.

KCD GGKE-K EKITATEAREN ALDEKO APUSTUA EGIN DU

KCD GGKE konprometiturik dago, orobat, genero-ekitatearekin, eta, ildo horretan, milioika emakumek eta sistema patriarkalaren heteronormatibitatearekin bat ez datozen pertsonek ja-

saten duten **diskriminazioa eta indarkeria amaitzea** du xede. Horretarako, **emakumeen partaidetza sustatu** nahi du politikagintzan, gizartean, kulturan eta esparru ekonomikoan, baita emakumeen ahalduntzea indartu ere. Berdintasunaren aldeko lan horretarako, gainera, beharrezkoa da guztien **inplikazioa, gizon zein emakume**, hala lortuko baita heteroarauari hortzak erakustea, baita bestelako sexu-orientazio eta -identitateen diskriminazioari ere.

KCD GGKEk apustu instituzional argia egin du sortu zenetik, **genero-ekitatea modu transbertsalean sustatzeko,** hala erakundearen jarduera guztietan nola dinamika propioetan. Eta halaxe jasotzen du, gainera, bere plan estrategikoetan, eta ikuspegi feminista txertatzen du Lankidetzako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza ekintzetan, euskal erakunde publiko eta pribatu espezializatuek proposatutako politikekin, dokumentuekin eta kodeekin bat etorriz. Horregatik, **eguneroko ekintzen aldeko apustua** egiten du, **errealitateak eraldatzeko** gizarte-bizitzako esparru guztietan.

EGITURA



Erakundearen egiturari buruzko informazio gehiago: https://www.kcd-ongd.org/conocenos?lang=eu

BOLUNTARIOAK

KCD GGKEk hainbat pertsona eta profesionalen babesa jasotzen du, eta, haiei esker, honako ekimen hauek gauzatu ahal izan ditu: Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia, «Zinemagileen artean» emakumeek egindako zinema-karabana eta erakundeak 2025ean burututako beste zenbait jarduera eta ekitaldi.

2025eko Bilboko 17. FICIko boluntario-taldearen zati ba

- Guztira 18 pertsona (13 emakume eta 5 gizon) aritu dira **kanpo-batzorde** gisa, zinema-jaialdiaren azken hautaketa egin aurretik filmak ikusteko.
- Beste 21 lagunek (14 emakumek eta 7 gizonek) jardun dute **zinema-jaialdiko epaimahaikide** gisa, Zinema Ikusezinaren 16. edizioko lanak saritzeko.
- Horrez gain, 35 lagun (30 emakume eta 5 gizon) aritu dira **laguntzaile** gisa zinema-aretoetan, zinema-jaialdian eta karabanan.
- CIFP Tartanga LHIIko «Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa» goi-mailako zikloko bigarren urteko ikasleak, 29 pertsonaz osatua (10 emakume eta 19 gizon), jardun dute zinema-jaialdiko 17.edizioko **errejidore-lanetan.** Gainera, ziklo bereko lehen urteko beste 47 ikaslek ere (22 emakume eta 25 gizon) parte hartu dute ikusle gisa beren prestakuntzaren barruan.
- Erakundearekin lankidetza-hitzarmena sinatu duten 19 ikastetxeetako 954 **irakasle (%60 emakume)**, berriz, tailerretan, zinema-jaialdian eta beste jarduera batzuetan aritu dira.

KCD GGKEko boluntarioen taldeko kide izan nahi baduzu edo beste edozein modutan lagundu nahi baduzu, idatzi helbide honetara: info@kcd-ongd.org.

LANKIDETZA-AKORDIOAK HEZKUNTZA-ERAKUNDEEKIN

1. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU (Uda Ikastaroak)
2. Bizkaiko Esperientzia Gelak
3. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoa
4. Deustuko Unibertsitatea
5. IES Ibarrekolanda BHI, Bilbo
6. CIFP Txurdinaga LHII, Bilbo
7. CIFP Elorrieta Erreka Mari LHII, Bilbo
8. CIFP Nicolás Larburu LHII, Barakaldo
9. CIFP Tartanga LHII, Erandio
10. IES Aixerrota BHI, Getxo
11. CIFP Iurreta LHII, Iurreta
12. IES Artaza-Romo BHI, Leioa-Getxo
13. IES Mungia BHI, Mungia
14. IES Ballonti BHI, Portugalete
15. IES Saturnino de la Peña BHI, Sestao
16. IMFPB Bituritxa OLHUI, Barakaldo
17. IES Bengoetxe BHI, Galdakao
18. IES Gernika BHI
19. IES Uribe Kosta BHI, Plentzia
20. IES Eskurtze BHI, Bilbo
21. La Mennais Berri Otxoa Ikastetxea
22. IES Julio Caro Baroja BHI, Getxo
23. IES Zaraobe BHI, Amurrio
24. CIFP Meka Elgoibar LHII, Elgoibar

TOKIKO ETA NAZIOARTEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO LANKIDETZA

1. Ongi Etorri Errefuxiatuak, errefuxiatuak babesteko plataforma
2. *Mujeres con Voz* erakundea

3. Hartu Emanak erakundea
4. UN Etxea, Euskal Herriko Elkartea UNESCOrentzat
5. Zinegoak, Bilboko gay-lesbo-trans Nazioarteko Zinema Jaialdia
6. Barakaldoko HalaDzipo Musika Eskola
7. Emakumeek zuzendutako zinema-erakusketa - Zinemakumeak Gara

HEGOALDE GLOBALEKO ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZAK

1. Latinoamerikako Zinema Berriaren Nazioarteko Jaialdia, Habana, Kuba.
2. Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia, Saint-Louis, Senegal.
3. "El lugar que habitamos" Irrati eta Zinema Komunitarioko Jaialdia, Oaxaca, Mexiko.
4. CLACPI. Herri Indigenen Zinema eta Komunikazioko Latinoamerikako Koordinatzailea.
5. "Ojo al Sancocho" zinema eta bideo alternatibo eta komunitarioaren nazioarteko jaialdia, Ciudad Bolivar, Bogota-Kolonbia.
6. REVERDES, El Salvadorreko mugimendu politikoa, krisi ekologiko, sanitario, ekonomiko eta sozialaren inguruan lan egiten duena.

KCD GGKE-REN KONTRAKO ALDERDIAK HEGOALDE GLOBALEAN

Habana Hiriko Historialariaren Bulegoa (1938).

Habanako hirigune historikoa birgaitzearen ardura du 1981. urtetik. Zeregin horretan, garapen integral eta jasangarriko eredua ezarri du, kultura, ondarearen birgaikuntza, arkitektura-zaharberritzea eta berroneratze sozioekonomikoa ardatz hartuta, bizigunea baldintza duinetan kontserbatzeko xedearekin, ekonomikoki errentagarria eta ingurumenaren aldetik jasangarria izan dadin.

CAJAR – Colectivo de Abogados y Abogadas «José Alvear Restrepo» , Kolonbia (1978).

Giza Eskubideak ikuspegi integral batetik defenditu eta sustatzen ditu, eskubideok banaezinak eta interdependenteak direla oinarri hartuta. Ildo horretan, inpunitatea gainditzen eta Zuzenbidezko Estatu Sozial demokratikoa eta partaidetzazkoa finkatzen lagundu nahi du —bidezkoa eta ekitatiboa den gizartean, gizarteratze politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalaren ikuspegitik—, baita bake egonkor eta iraunkorra lortzen ere.

Equipo Maíz elkartea, San Salvador, El Salvador (1983).

Prestakuntza-erakundea edo ikastetxea da, eta bere ildoko erakunde sozial, herrikoi eta sindikaletako militanteen eta ekintzaileen prestakuntza integrala sustatzea du helburu. Herri-hezkuntza du oinarrizko estrategia, errealitatea ulertzeko eta analisi kritikorako tresna.

Ojo de Agua Comunicación Indígena, Oaxaca, Mexiko (1998).

Komunikazio indigena eta komunitarioa sustatzen du, irrati- eta bideo-saio kulturalak eta hezigarriak ekoitziz; horrez gain, beste kolektibo eta erakunde batzuekin lankidetzan dihardute komunikazio indigena eta komunitarioko prozesu eta komunikabideetan, Mexikoko hegoaldean eta gure herrialdeko eta Latinoamerikako beste eskualde batzuetan.

ACUA Asociación Comunitaria Unida por el Agua y la Agricultura, El Salvador (2005).

Erakunde solidarioa, gardena eta inklusiboa da. Gizarte-justiziarekin, genero-berdintasunarekin eta ekitatearekin konprometituta dago, eta biztanleria zaurgarri eta pobretuaren ahalmenak indartzen ditu, haien eskubideak eta lurraldearen kudeaketa alternatiboa exijitzeko, bereziki uraren iraunkortasunari eta elikadura-burujabetzari dagokienez.

Klaketa Arabe, Egipto (2007).

Kairon egoitza duen ekoiztetxea, emakumeek egindako zinemaren prestakuntzan eta sustapenean lan egiten duena.

Hahatay, son risas de Gandiol, Senegal (2012).

Wolof hizkuntzan *Man na neek* (posible da) esaten dioten kontzeptua oinarritzat duen erakundea da. Hori dela eta, elkartearen misioa (eginez ikastea) etengabeko ekintza da, ziurtatu ahal izateko pertsona guztiak duintasunez biziko direla eta beren bizitzaren protagonista eta beren garapenaren eta askatasunaren eragile izango direla.

FGER: Guatemalako Irrati Eskolen Federazioa, Guatemala (1965)

59 urteko lan komunitarioa duen erakunde indigena, kulturarteko, lurraldeko eta genero ikuspegiko komunikaziorako eskubidea sustatzen duena. Guatemalako 20 departamendutan dago, eta 8 milioi lagunek parte hartzen dute bertan, 22 hizkuntza maiatan, Xinkan eta Garifunan. FGERek antolaketa-prozesuak bultzatzen ditu, komunikatzaile indigenen prestakuntzaren, hizkuntza-biziberritzearen, lurraldearen defentsaren, osasunaren eta gazteen parte-hartzearen bidez. Aipagarria da Jun Na'oj Komunikatzaile Indigenen Sarea, testuinguru propioetatik emakumeen parte-hartze politikoa sustatzen duena.

CIES: Gizarte Ikasketetarako Kulturarteko Komunitatea, Guatemala (2015)

Kultura arteko bokazioa eta eskubide kolektiboen ikuspegia duen gizarte-, hezkuntza- eta komunitate-elkartea. Lurraldeetatik gaitasunak indartzeko, Ama Lurra defendatzeko eta jakintza komunitarioak berreraikitzeko lan egiten du.

TESTUINGURUA

2025. urtea inflexio-puntua izan da nazioarteko sisteman, eta hala jasoko du historiak ere. Donald Trump Etxe Zurira itzuli izanak ez du inor epel utzi, aldaketa itzela eragin baitu politika globalean.

Hark agintea hartu ondorengo hilabeteetatik hasita, bertan behera geratu ziren herrialdeko funtsezko politika asko; besteak beste, ingurumenaren, migrazioaren, erregulazio ekonomikoaren eta ekitatearen ingurukoak. Nazioarteko klima-konpromisoei uko egin zitzaien, eta migrazio-politikak gogortu egin ziren. 2025ean 170.000 pertsona inguru kanporatu zituzten herrialdetik, eta horietatik 300 lagun, gutxi gorabehera, El Salvadorreko segurtasun handiko espetxe batera bidali zituzten. Mezu argia bidali zitzaion munduari: «America First» lelopean, edozer egin ahal izango da interes nazionalei lehentasuna emateko.

Nazioartean, halaber, muga-zergen bidezko erasoaldi bortitzari ekin zion AEBk, eta horrek herrialde askori eragin zien, tartean aurkari estrategiko nagusi duen Txinari. Neurri horien guztien ondorioz, tentsio globala areagotu egin da, eta nabarmen ahuldu dira alde anitzeko lankidetzarako nazioarteko guneak, baita haren hurbileko aliatuen artean ere. Zuzeneko eragina izan du horrek merkatuetan eta planeta osoko hornidura-kateetan.

Norabide-aldaketa hori ez da izan egitate isolatua. Izan ere, estrategian eta geopolitikan gertakariak ez dira, oro har, kasualitatearen ondorio izaten, eta are gutxiago Asiako erraldoiaren aurrerabidea geldiarazi nahi denean, haren potentzial nabarmena dela eta. Gastua murrizteko helburuarekin, Trumpen gobernuak USAIDen (Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuetako Agentziaren) itxiera teknikoa ere eragin du, eta horrek ondorio larriak izan ditu munduko laguntza humanitarioan eta osasun-laguntzan.

Murrizketak egiteko joera ez da AEBko kontua soilik, mendebaldeko beste herrialde batzuk ere ildo beretik ari baitira. Ondorioz, litekeena da Hegoalde Globaleko herrialde batzuek *presio-tresnatzat* hartzea murrizketok, munduko jokaleku geopolitiko berrian.

Baina herrialde guztiek ez dute bide hori hartu; batzuek lankidetzaren, elkartasunaren eta multilateralismoaren alde egiten jarraitzen dute, eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman-modu berrien bila dabiltza, gizateriaren erronka globalei aurre egiteko.

Hortaz, kontraesan kezkagarri baten aurrean gaude: alde batetik, lankidetzara eta elkartasunera bideratutako baliabideek behera egin dute, eta, bestetik, armamentuan egiten diren inbertsioak goraka ari dira. Munduko gastu militarrak errekorrak hautsi ditu, eta gerta liteke herrialde industrializatuek sektore militarrerantz bideratu nahi izatea haien industria.

Ezegonkortasunak eta gerrak baldintzatzen dute agertoki globala: Bigarren Mundu Gerratik izan den gatazka armatuen kopururik handiena dugu gaur egun. Gure bizitzetan eguneroko bihurtu dira Ukrainako gerra, Gazako suntsipena, Zisjordaniako zapalkuntza eta Ekialde Hurbileko gainerako gatazkak, baina ezin dugu egoera hori normalizatu, arbuiatu egin behar dugu.

Egoera horren aurrean, bakeari eusteko, herrien arteko adiskidantza sustatzeko eta gizarte-aurrerabidea zein giza eskubideak sustatzeko sortu zen Nazio Batuen Erakundea krisi sakonean eta oso ahul iritsi da 80. urteurrenera. Horrenbestez, sistema multilateralak zalantzaz betetako une erabakigarria bizi du.

Aldi berean, garaiko erronka handiei —klima-aldaketari, gatazka armatuei, behartutako migrazioei, genero-desberdinkeriari eta gizarte-bazterketari— aurre egiteko, gaur egun ezinbestekoak dira lankidetzan, elkartasunean eta giza eskubideetan oinarritutako inplikazio eta erantzun kolektiboak.

Munduak bizi duen egoera honetan, garapen jasangarrirako helburuak (GJHak) lortzeko aurrerapausoak ez dira nahikoa, lau urte bakarrik falta baitira 2030 Agendan ezarritako epemugarako. Arriskua ez da soilik helburuok ez lortzea; garapen-eredu bideragarri, ekitatibo eta jasangarriago baten aldeko konpromiso globala larriki ahultzea da arazorik larriena.

Gizarte zibilaren egitekoa

Egungo egoeran, gizarte zibilaren zeregina inoiz baino garrantzitsuagoa da. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek (GGKEek) lanean jarraitzen dute justizia sozialaren, berdintasunaren eta giza eskubideen alde, bai Hegoalde globalean eta bai Iparraldean.

Proiektuak gauzatzeaz, gain, gaitasunak indartzen dituzte, pentsamendu kritikoa bultzatzen dute, eta guztien ongiarekin konprometitutako herritarrak sustatzen dituzte.

Kultura Communication y Desarrollo KCD GGKEan eta Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdian eutsi egiten diogu lankidetzaren, kulturaren, hezkuntzaren eta komunikazioaren aldeko apustuari, gizarte bidezkoagoak eta inklusiboagoak eraikitzeko tresnak direlakoan. Urtean zehar, Hegoalde Globaleko erakunde eta komunitateekin eta Euskadiko zenbait laguntzailerekin batera aritu gara aukerak eta ahalduntzea sustatzen eta eskubideak zein kontzientzia soziala indartzen.

Ziurgabetasunez betetako garaiotan, lankidetzaren eta elkartasunaren alde eginez mundua ulertzeko modu jakin bat defendatzen da, elkarrizketa eta erantzukidetasuna oinarri dituen mundu-ulerkera, hain zuzen.

Horregatik, funtsezkoa da konpromiso- eta elkartasun-sareak ehuntzen jarraitzea. Sare horiek ikusezinak dira askotan, baina itxaropenaren euskarri dira, eta mundu bidezkoagoa eta ekitatiboagoa lortzeko bidean aurrera egitea ahalbidetzen dute.

Ea txosten hau ere inspirazio-iturri den. Izan ere, ziurgabetasunaren erdian argitasun apur bat ekartzeko gai bagara, justiziazko, berdintasunezko eta duintasunezko etorkizunerako bidea irekiko dugu.

J. Carlos Vázquez Velasco
Kultura Communication Desarrollo - KCD ONGD
Festival Internacional de Cine Invisible "Film Sozialak" de Bilbao

2 GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA-EKINTZAK EUSKADIN

Gizartea eraldatzeko hezkuntza (GEHa) da KCD GGKEren ekintzaren ardatzetako bat Euskadin, pertsonak eta herritarrak jartzen baititu gizarte-aldaketako prozesuen erdian. Kulturaren eta komunikazioaren bidez, askotariko proposamenak bultzatzen dira eredu nagusiak zalantzan jartzeko, pentsamendu kritikoa sustatzeko eta gizarte bidezko, inklusibo eta jasangarriagoak eraikitzen laguntzeko.

Arteak eta kultura-aniztasunak eraldatzeko indar handia dute, eta hausnarketa kolektiborako eta gizarte-partaidetzarako guneak sortzea ahalbidetzen dute. Adierazpide artistikoek —zinemak, idazketak, dantzak eta abarrek— errealitateei ikuspegi emozionaletik nahiz arrazionaletik heltzea ahalbidetzen dute, aukera emanez gizarte-imajinario berriak sortzeko eta planteamendu ekonomiko hutsetatik harago doan garapenaren ikuspegi bat ezagutarazteko.

Ildo beretik, KCD GGKErentzat, **gizarte-eraldaketarako komunikazioa** prozesu politiko eta pedagogikoa da, bere baitan hartzen dituena genero-ikuspegia, kulturartekotasuna, giza eskubideak eta jasangarritasun ekologiko, ekonomiko eta soziala. Komunikazio-prozesuek eta horien emaitzek aldaketak eragitea dute xede, garapen jasangarria sustatzeko eta herritarren ahalmen eraldatzailea indartzeko.

KCD GGKEk ardatz hauen inguruan antolatu ditu gizartea eraldatzeko hezkuntzaren alorrean urtean zehar gauzatu dituen ekintzak:

- Gizarte-eraldaketarako komunikazio-estrategia finkatzea, **gizartearen kontzientzia kritikoa indartzeko eta Euskadiko herritarren eta hezkuntza-komunitatearen eraldaketa-gaitasuna sendotzeko**. Horretara bideratuta daude komunikazioa kudeatzeko ikastaroak eta lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasleentzako zinema sozialeko lantegiak, eta xede horrekin daramagu «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Jaialdia batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeetara zein unibertsitateetara.
- Errealitate globalaren eta tokikoaren gaineko ikuspegi zabal eta kritikoa eskaintzen duen **zinema soziala erakusteko eta sustatzeko guneak finkatu eta ugaritzea**, arreta berezia eskainita emakumeen ikus-entzunezkoen ekoizpenari. Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia, Emakumeek egindako zinemaren Karabana eta KCD GGKEk egiten dituen askotariko film-erakustaldiak dira estrategia hori gauzatzeko baliabideetako batzuk. Ildo beretik, **emakume zinemagileen ikus-entzunezko lanak bultzatzen dira**, bereziki Hegoalde Globaleko egileenak, zinemagintzaren sektorean genero-arrakala txikitzen eta genero-estereotipoak desegiten laguntzeko.
- Kulturarekin, komunikazioarekin eta garapenarekin lotutako **esperientziak eta prestakuntza trukatzeko guneak sendotzea**, eta emakumeak lehenestea aldaketa-eragile gisa. Ildo horretan, KCDk Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Topaketak antolatzen ditu urtero, eta bertan parte hartzen du.
- **Askotariko eragileen bidez, tokiko eta nazioarteko sareen eta aliantzen sorrera sendotu eta zabaltzea, ikuspegi globala eta tokikoa kontuan hartuta.** Batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeekiko eta EHUrekiko aliantzak oso garrantzitsutzat jotzen ditugu zinema gizarte-eraldaketarako tresna gisa erabiltzeko.
- KCD GGKEk **genero-ekitatearen aldeko apustuari** eusten dio; horretarako, genero-desberdinkeriak ikusarazten ditu eta horiei aurre egiten die komunikazioaren bidez eta komunikabideetan emakumeen ahalduntzea sustatuz.

KCD GGKEk Euskadin egiten dituen jarduerak gizartea eraldatzeko hezkuntzaren estrategiaren barruan daude, funtsezko tresna baita gizarte-aldaketarako eta giza garapen jasangarrirako. (H)abian 2030 estrategiarekin bat, GEHa prozesu bat dela uste dugu, pentsamendu kritikoa eta gizarte-erantzukidetasuna bultzatzeko eta herritar global kontzientziadun, ahaldundu eta ingurunearen eraldaketarekiko konprometituak sustatzeko. Era berean, ekintza horiek lagungarriak dira 2030 Agenda eta garapen jasangarrirako helburuak euskal gizarteko askotariko sektoreetara zabaltzeko.

Jarraian, GEHaren alorrean —eta aipatutako proposamen estrategikoaren ildotik— 2025ean egindako jarduerei buruzko azalpen zehatza eskainiko dugu:

BILBOKO «FILM SOZIALAK» ZINEMA IKUSEZINAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

17. edizioan ere, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak herritar kritiko, konprometitu eta eraldaketarako gaitasundunak sustatu ditu. Zinema sozialeko lanekin osatutako egitarauaren bidez, bizi garen munduari buruzko askotariko ikuspegiak erakutsi ditu jaialdiak, eta ageriko egin ditu arazo globalak eta gizartea aldatzera bideratutako ekimenak zein proposamenak.

«Film Sozialak» jaialdiak funtsezko giza eskubidetzat ditu kultura eta komunikazioa, ezinbestekoak direlakoan beste eskubide batzuk gauzatzeko, eta garapen jasangarrirako helburuak eta 2030 Agendan adostutakoak lortzeko bidean aurrera egiteko. Nolanahi ere, ez dago aukera-berdintasunik eskubide horiek erabiltzeko orduan; izan ere, pertsona guztiek ez dute adierazteko, entzuna izateko eta zabalpen kultural eta mediatikorako guneetan parte hartzeko aukerarik; desoreka handia dago oraindik.

Testuinguru horretan, zinema funtsezko tresna da gizartea eraldatzeko komunikaziorako (GEKerako). Erraztasunez informatzeko, sentsibilizatzeko eta hausnarketa eragiteko ahalmena du, alderdi emozionala ukitzen baitu. Horregatik, baliabide eraginkorra da elkartasunarekin eta ikuspegi kritiko zein eraldatzailearekin lotutako balioak transmititzeko. Zirkuitu komertzialetan aurkitzen dugunaren aldean, jaialdiak proposatzen duen zinema-esperientzia oso bestelakoa da; zinema parekidearen alde egiten du, askotariko kontakizunen alde, munduko hainbat herrialdetako egoerekin lotuta dagoen zinemaren alde.

Ekitatea, justizia soziala, kulturartekotasuna, giza eskubideak eta jasangarritasuna —askotariko dimentsioetan— sustatzen dituzten ahotsak lehenesten ditu. Ugaritzen ari diren gorroto-, indarkeria- eta bazterketa-diskurtsoen aurrean, jaialdiarentzat erresistentzia kulturalerako, elkarrizketarako eta bakea eraikitzeko gunea da zinema.

Garapen jasangarrirako helburuen esparruan, Euskadiko emakumeak, gizonak eta gizarte-kolektiboak indartzea da jaialdiaren asmoa, gizarte-eraldaketaren eragileak izan daitezen, Iparralde eta Hegoalde Globalaren arteko interdependentziak kontuan hartuta.

Ikus-entzuleen nondik norakoak

Ohikoa denez, jaialdiak ikus-entzuleak jarri ditu erdigunean. Horretarako, egoitza bakoitzean parte hartzen duten taldeetara heltzeko eta haien esperientzia zaintzeko estrategia berezia lantzen du urtero. Ikus-entzuleen kopuruari erreparatzea ez da, berez, ekitaldiaren helburu nagusia, baina aukera ematen du proposamenak izan duen harrera baloratzeko.

Azken edizioan, jaialdiak 17.332 lagun bildu zituen aurrez aurreko jardueretan, eta beste 724 parte-hartzailek online egin zuten bat palmareseko lanen erakustaldiarekin, *Klikatu Zinema Ikusezina* plataformaren bidez. Hala, 17. edizioak **18.056 parte-hartzaile** izan zituen guztira. Era berean, aipatutako plataformaren bidez 1.274 lagunek hartu zuten parte Ikusezina Express lehiaketako ikusle gisa.

17. Bilbo 2025 FICIren inaugurazio-ekitaldia, Bilboko Alondegiko Azkuna Zentroko auditorioan

Ikus-entzuleen profilari dagokionez, oraindik ere emakumeak dira nagusi (% 54). Halaber, lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasleen presentzia nabarmena izan da, ikastetxeekiko lankidetzari esker. Zinema eta analisi soziala uztartzen dituenez, jaialdiak ikasleen kontzientzia kritikoa pizten laguntzen du, aniztasunaren, errespetuaren eta elkartasunaren balioak eta egungo gizarteko erronken aurrean inplikazio aktiboa sustatuz. Planteamendu horrekin, Zinema Ikusezinaren Jaialdia hezkuntza-tresna praktikoa eta eraginkorra da, oso erabilia hezkuntzaren esparruan.

Edizio honetan 19 ikastetxek hartu dute parte, **13.809 ikaslek** guztira (horietatik % 53 emakumeak). Ekimenak ez luke horrelako inpakturik izango **954 irakasleren**[1] inplikaziorik gabe (horietatik % 60 emakumeak). Saioak dinamizatu dituzte eta jarduera osagarriak koordinatu; azken finean, haien zeregina funtsezkoa izan da jaialdiak pedagogiaren aldetik eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeko.

Hezkuntzakoak ez diren egoitzetako (zenbait udalerri eta hiritako) ikus-entzuleen kopuruak ere nabarmen egin du gora: edizio honetan **3.453 lagun** izan dira, horietatik % 63 emakumeak. Egoitza-kopurua ez da handitu, baina horietan bildutako ikus-entzuleen kopurua bai. Beraz, agerikoa da gero eta interes handiagoa pizten duela Zinema Ikusezinak erakusten duen zinema sozialak, zinema-aretoetara, oro har, ikusle gutxiago joaten bada ere. Publikoa askotarikoa da, emanaldiak hartzen dituzten aretoak ere halakoxeak direlako eta erabiltzen dugun lurralde-estrategiari esker, batez ere.

Publikoaren aniztasun hori lortzeko, jaialdiak lurraldean duen presentzia finkatu nahi izan du, eta bere jarduna askotariko guneetara zabaldu. 17. edizioa hiru lurralde historikoetan egin da, baina Bizkaian izan du hedapenik handiena. Orotara, 18 udalerritako 37 egoitzatan egin dira jaialdiko saioak; besteak beste, Bilbon, Gasteizen, Barakaldon, Getxon, Mungian, Abadiñon, Antzuolan, Elorrion, Zallan eta, estreinakoz, Elgoibarren. Kopuru horren barruan dago palmaresa erakutsi zuen onlineko egoitza ere.

1 Datu horrek ez du esan nahi pertsona diferenteak direnik, ekintza edo jardueretan 837 lagun inplikatu direla baizik; beraz, litekeena da pertsona batek jarduera batean baino gehiagotan parte hartu izana.

Elkarrizketak pertsona gonbidatuei Bilboko Azkuna Zentroko hallean dagoen Radio Candelaren setean, 17. FICI-Bilbao 2025 galetan.

17 edizioetako datuak metatuta, ia **160.000 lagun** bertaratu dira guztira jaialdira **(% 55 emakumeak)**. Ikusleen partaidetzan izan den etengabeko gorakadarekin agerian geratu da jaialdiak komunitatean duen eragin positiboa, bai eta jendearen interesa eta konpromisoa luzaroan irauNarazteko duen gaitasuna ere.

2025eko lanen hautaketa

Azkenean, lehiaketarako egitarauan 82 film eskaini ziren: fikziozkoak nahiz gai sozialei buruzko dokumentalak. Jaialdian pisurik handiena duen generoa dokumentala bada ere, gai sozialak jorratzen dituzten fikziozko lanek gero eta leku handiagoa hartu dute. Hautatutako film horietatik 38 (% 46) emakumeek bakarrik edo lankidetzan zuzendutako lanak dira. Hori lortzeko ahalegina ez da egun bateko kontua, finkatuta dagoen lan-ildo baten ondorioa baizik: jaialdiaren guztizko datuen arabera, edizio guztietan erakutsitako filmen % 45 emakumeek zuzendu dituzte. Ibilbide

horrek agerian uzten du emakumeek egindako zinema zabaltzearen aldeko estrategia, eta emakumeek munduari eskaintzen dizkioten begiradak, ikuspegiak eta kontakizunak hurbildu nahi izateari zor zaio.

Hautatutako filmak jaialdiko kategorien arabera sailkatu dira, eta horrek aukera eman du askotariko gaiei heltzeko: ingurumen-gatazkak, herri indigenen eskubideak, gatazka armatuen inpaktuak, LGBTI+ pertsonen eskubideak, genero-desberdinkeriak eta askotariko bizimoduak eta bizikidetza-ereduak. Egitarauak, arazoak eta arau-hausteak ikusarazteaz gain, proposamen eraldatzaileak, erresistentzia-esperientziak eta desberdinkeriak gainditu dituzten adibideak erakutsi ditu.

Azpimarragarriak izan dira, halaber, ikastetxeetan egindako ekoizpen-lanak. Oraingoan, lankide ditugun ikastetxeetako ikasleek egindako 5 filmek hartu dute parte jaialdian. Lan horiek ikastetxeetan erakutsi direnez, ikasleek aukera izan dute beren lanak nazioarteko zinemaldiko gainerako sormen-lanekin *lehiatzen* ikusteko, baldintza berberetan.

Zinema soziala euskaraz ere hedatzeko asmoz, 9 film lehiatu dira euskarazko obrarik onenaren saria irabazteko. KCD GGKEn badakigu gutxi direla euskaraz egindako film sozialak, urtean ez baitugu horrelako askorik jasotzen. Hala ere, gure konpromisoa da jaialdian euskarak presentzia nabarmena izatea. 2025ean 9 film eskaini ziren euskaraz, 112 emanalditan (guztizkoaren % 17). Datuek erakusten dutenez, jaialdiak oraindik ere bide luzea du ildo horretan.

Hautatutako filmen jatorria ere jaialdiaren aniztasunaren erakusgarri da: 46 herrialdetako lanak izan dira ikusgai, eta herrialde horietatik 36 Hegoalde Globalekoak dira. Gaien eta jatorri geografikoaren aldetik dagoen zabaltasun horri esker, proposamenetako askok lotura dute gizarte-erakundeek edo -mugimenduek bultzatutako kausekin. Azken edizioan, 11 film (guztizkoaren % 13) Afrika kontinentaleko herrialde eta lurraldeei buruzkoak izan dira. Obra horien hautaketa Senegalgo Hahatay Son Risas de Gandiol GGKEaren laguntzarekin egin da, besteak beste. Afrikak gero eta leku nabarmenagoa du Zinema Ikusezinaren Jaialdian, bai lanen hautaketan eta bai gonbidatuei dagokienez. Bi kasuetan, protagonisten eskutik datozen kontakizunak lehenesten dira, garrantzitsua delako historiak barrutik kontatzea.

Foroak eta gonbidatuak

Publikoarekiko interakzioa da jaialdiaren bereizgarrietako bat, eta alderdi hori da, hain zuzen, parte-hartzaileek gehien baloratzen dutenetako bat. Azken edizioan 26 filmek izan dute elkarrizketarako gune bat, eta foro horiek 46 saiotan egin dira. Ekitaldiok aukera eman dute filmetako gaien eta/edo sormen-prozesuen inguruko iritziak bertatik bertara partekatzeko.

Jaialdiak 36 lagun gonbidatu ditu saio horietan parte hartzeko, hala nola zuzendariak, gidoilariak eta jorratutako gaiekin lotura duten profesionalak. Gonbidatuetako 15 (% 44) Hegoalde Globalekoak izan dira —Afganistan, El Salvador, Guatemala, Senegal eta Burkina Faso—. Horrek agerian uzten du Zinema Ikusezinaren Jaialdiak ahotsen eta askotariko ikuspuntuen parte-hartze ekitatiboarekin duen konpromisoa. Gainera, Afrikako kontakizunak nabarmentzeko berariazko estrategiarekin bat, 3 gonbidatu (% 9) kontinente horretako herrialdeetako ordezkariak izan dira.

Era berean, azpimarragarria da emakumeak izan direla nagusi gonbidatuen artean: 36 gonbidatuetatik 20 (% 56), hain zuzen. Hala, jaialdiak indartu egin du parte-hartze berdinzalearen aldeko eta emakume profesionalak aintzatesteko apustua, haien esperientziek solasaldiak aberasten baitituzte.

"Les invertueuses" filmaren foroa, Burkina Fasoko Aicha Boro zuzendariarekin.

El Salvador, Kuba, Senegal eta Mexikotik etorritako nazioarteko gonbidatuetako batzuk.

Ekitatearen aldeko apustua

KCD GGKEk ekitatearen aldeko apustu irmoa egiten du, errealitatearen azterketa eta plangintza estrategikoa kontuan hartuta.

Lanen eta gonbidatuen hautaketari buruz aipatutako datuek ekitatearen aldeko jarrera argia erakusten dute. Horrez gain, faktore erabakigarria da emakume zinemagileei egiten zaien berariazko aintzatespena; horren harira, genero-ekitatearen ikuspegirik onena duten lanak saritzen dituen kategoria bat du zinemaldiak.

Era berean, bi emakumek eta gizon batek osatutako epaimahaiak mantendu dira kategoria bakoitzean. Estrategia horren ondorioz, 2025ean, emakumeek bakarrik edo lankidetzan zuzendutako filmek eraman dituzte sarien % 70 eta aipamenen % 50. Beraz, emakume sarituek egindako lanen batezbestekoak sektoreko zifrak gainditu ditu.

Azkenik, kontziliazioa errazteko, Zinema Ikusezinak haurtzaindegi-zerbitzua eskaintzen jarraitu du Bilboko egoitza nagusira joaten diren zinemagileentzat eta genero guztietako ikusleentzat.

Zuzendaritzako generoaren arabera hautatutako lanak



Zinema sozialaren ekoizpena eta hedapena bultzatzea

Filmei eta obretan nabarmentzen diren gaiei ikusgarritasun eta ibilbide handiagoa emateko, zinema-jaialdiak 13 sari berezi eman ditu azken edizioan, hainbat kategoriatan. Sariak berezkoa duen prestigioaz eta ikusleen errekonozimenduaz gainera, 2025ean guztira 22.000 eurotik gora eman dira saritan, hainbat erakunde publikoren eta pribaturen laguntzari esker.

JAIALDIKO 13 SARIAK

1. Iraunkortasuna
2. Giza eskubideak
3. Emakume batek egindako lanik onena
4. Genero-ekitatea
5. Kulturartekotasuna
6. Balioetan oinarritutako hezkuntza
7. Ikusleen saria
8. Euskaraz egindako lanik onena
9. Zinema Ikusezina
10. Ikusezina Express
11. Ikusezina Express ikusleen saria
12. Gazteen Klaketa
13. Gazteen Klaketa ikusleen saria

Amaierako ekitaldiko argazkia sarituekin eta 17. FICIn Bilbao 2025 ekitaldiaren antolatzaileekin.

Bilboko Elorrieta Errekamari BHIko ikasleek egindako dekorazioa. Bilboko 17. FICIn parte hartu zuen.

Filmen zuzendaritzako generoaren arabera emandako sariak eta aipamenak



ERAKUSKETAK

Argazki-erakusketak funtsezkoak dira jaialdia bera ezagutzera emateko eta jorratzen dituen gaien inguruan publikoa sentsibilizatzeko. 2025ean, bi gai nagusiri erreparatu die jaialdiak zenbait gunetan.

Batetik, jasangarritasunaren gaiaren inguruko erakusketa diseinatu, ekoiztu eta muntatu zen Bilboko metroko erabiltzaileei zuzenduta; Dakar (Senegal) hiria da erakusketa horretako protagonista, bertan proiektu aitzindariak jarri baitituzte martxan, jasangarritasuna areagotzeko, energiari eta ingurumenari dagokienez. Marta Moreiras argazkilari eta kazetari galiziarra izan zen Dakar hirian oinarritutako erakusketaren komisarioa. Jaialdiak iraun zuen egunetan, 14 panel izan ziren ikusgai Bilboko bi geltoki jendetsuenetako tuneletan: Zazpikaleak eta Moyua geltokietan, hain zuzen.

Bestalde, Argazkigintza Humanitarioko Luis Valtueña sariaren inguruko atzera begirako erakusketa egin zen, sariaren arduradun den Munduko Medikuak elkartearen lankidetzarekin. Argazki-erakusketa horretan askotariko formatuak erabili ziren; besteak beste, honako hauek:

- Bilboko Udalak hiriko kalerik jendetsuenetan jarritako 5 publizitate-kubo. Udalarekiko lankidetza horri esker, espazio publikook erabiltzeko aukera izan dugu.
- Bilboko Alondegian «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdian zehar ezarritako 14 panel mugikor; Munduko Medikuak elkarteko kideen eskutik hainbat bisita gidatu egin dira bertan. Jaialdiaren ondoren, panel horiek hainbat lekutan egon dira ikusgai: Sala BBKn, *XXV. Antonio Menchaca sarietan*; BBK Kuna aretoan, Fair Saturday ekitaldiaren karietara, eta Medikuen Elkargoaren egoitzan, bai Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna eta bai Munduko Medikuak eta Mugarik gabeko Kazetariak erakundeen 30. urteurrenak zirela eta. Aurrerago, jaialdiaren egoitza diren ikastetxeei eskainiko zaizkie, haiek erabil ditzaten.

Aurreko urteetan bezala, oraingoan ere Bilborock aretoan egin zen erakusketaren inaugurazio-ekitaldi irekia. La Tribu dantza-taldeak eta Anonimak musika-taldeak emanaldi bana eskaini zuten. La Tribu kulturarteko taldea da, eta Anonimak osatzen duten emakumeek mundu osoko beste emakume batzuen abesti indartsuak eskaini zituzten.

Hori eskerrak Bilboko herritarrek aukera dute erakusketara harekin lotura duten pertsonen eskutik hurbiltzeko, parte hartu duten argazkilariak aurrez aurre ezagutzeko, jorratzen diren gaien inguruan interesa duten beste pertsona batzuekin elkartzeko, iritziak eta esperientziak partekatzeko, aliantzak sortzeko eta abar.

"Atzera begirakoa – Argazki humanitarioko Luis Valtueña saria" erakusketako panelak, Munduko Medikuekin lankidetzan.

Marta Moreirasen ¿Residuos o Recursos? argazki-erakusketako panelak, Zazpi Kaleetako eta Moyuako geltokietan, 2025eko Bilboko 17. FICIn.

Aurreko urteetako erakusketak batetik bestera mugitzen jarraitzen dute, ikusleak erakartzen, eta, kasu batzuetan, eskuragarri ere badaude KCD GGKEn, zabalkunderako prest. *Erakusketa hauetakoren bat interesatzen bazaizu, jarri gurekin harremanetan info@kcd-ongd.org. helbide elektronikoaren bidez.*

1. **«Gure tokiaren bila»**
   Artista: Marilyn Solaya (Kuba)
2. **«Lumineszenteak, emakumeen aurkako ezkutuko indarkeriak»**
   Kazetaria: Igone Mariezkurrena Fernandez; argazkilaria: Irantzu Pastor Ordoki (Euskadi)
3. **«Ekimena Senegalen»**
   Komisarioa: Marta Moreiras (Galizia/Senegal); argazkilaria: Massow Ka (Senegal)

5. **«Eraikitzen ari garen bideak»**
   12+1 taldea; bertako kide dira Angelica Dass artista eta Ainhoa, Irati, Steven, Ikram, Fatima, Ahmed, Mirian, Ariane, Ekaitz, Jair, Mouhssine eta Erica gazteak.

6 **«Hiru hiriren batura»**
   Karen Amaia Bilbon, Kiovet Sánchez Kuban, eta Massow Ka, El Junio, Mamy H. Fall, Alioune Seye, Elimane Diao eta Madawass Diagne Senegalen.

Honako erakusketa hauetakoren bat interesatzen bazaizu, jarri gurekin harremanetan info@kcd-ongd.org. helbide elektronikoaren bidez.

KULTURARI, KOMUNIKAZIOARI ETA GARAPENARI BURUZKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

KCD GGKEk antolatutako **Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko 16. Topaketa 2025eko ekainaren 16an eta 17an** egin zen EHUren Bizkaia Aretoan, Bilbon, EHUren Uda Ikastaroen esparruan. *Hirien hazkunde-eredu jasangarriaren ondorioak* izenburupean, erakundeak, eremu akademikoko profesionalak, kultura- eta gizarte-eragileak eta egungo hiri-ereduak berraztertu nahi dituzten herritarrak bildu ziren gogoeta kritikoa egiteko, **garapen jasangarrirako 11. helburuari eta 2030 Agendari** erreparatuta.

Gaur egun **nagusi den hiri-garapeneko eredua** eta horrek gizartean, ingurumenean eta kulturan dituen ondorioak aztertu zituzten topaketaren lehenengo egunean. Inaugurazio instituzionalaren ondoren, hirigintza garaikidearen erronkak eta hirigintza feministaren ikuspegia jorratu zituzten hasierako hitzaldietan. Txosten horietan, pertsonak erdigunean jarriko dituzten hiri inklusiboen beharra nabarmendu zuten. **Gentrifikazioaren eragina eta erronkak** hizpide

Emaus Gizarte Fundazioaren "Casas de cartón: construyendo ciudades habitables" performancea, Topaketan zehar.

hartuta, egunean zehar solasaldiak egin zituzten, eta horietan akademiaren eta auzo-mugimenduen ekarpenak ere izan ziren. Halaber, **Gandioleko (Senegal)** kasu praktikoaren bidez, esperimentazio jasangarriko esperientzia komunitarioen berri jaso zuten Hegoalde Globaletik.

Topaketaren bigarren egunean, berriz, partaideek sakontasunez aztertu zuten **kulturaren, herritarren eta jasangarritasunaren** arteko harremana, hiri bizigarriak eraikitzeko funtsezko ardatzak direlakoan. Solasaldien atalean, kultura-kudeaketari, aktibismoari eta herritarren parte-hartzeari lotutako esperientziak partekatu zituzten. Era berean, eguneko egitarauaren barruan, *La Banda* film laburra erakutsi zen, eta **nazioarteko zenbait kasu praktikoren** berri jaso zuten ekitaldira bildutakoek. Kasu horien artean azpimarratzekoak dira **Habanako hirigune historikoko** ondare- eta kultura-kudeaketako esperientziak eta **Senegaleko Saint Louis** hiriko hiri-jasangarritasuneko eredua, UNESCOren estandarrei erreparatuta.

Topaketa bukatzeko, ekitaldian elkartutakoek **ondorio kolektiboak** atera zituzten, hiri-eredu bidezko eta jasangarriagoetarantz urratsak emateko gogoetak bilduz. Horrez gain, *Kartoizko etxeak: hiri bizigarriak eraikitzen* performancea izan zen ikusgai, Emaús Gizarte Fundazioaren eskutik.

Oro har, topaketan, KCD GGKEk berretsi egin zuen **etxebizitzaren, kulturaren eta tokiko ekonomiaren** aldeko konpromisoa, **ondasun globalak** baitira. Era berean, erakutsi zuen **guztien ongi globala** sustatuko duten kulturarteko elkarrizketarako guneak sustatzearekin konprometituta dagoela.

Aurten ere, landutako gaietan aditua den pertsona bat izan dugu errelatoretza egiten: Andrea Ruiz Balzola, Aniztasuna eta Migrazioak arloko aholkulari, irakasle eta ikertzailea eta Begirune fundazioko kidea.

Lan hori eskuragarri dago, gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez, KCD GGKEren web-orrian: https://www.kcd-ongd.org/encuentro?lang=eu

EMAKUMEEK EGINDAKO ZINEMAREN KARABANA

KCD GGKEk KlaketaÁrabe ekoiztetxearekin batera antolatzen duen **«Zinemagileen artean» zinemaren 14. Karabana 2025eko maiatzaren 26tik 30era** egin zen **Bilboko Azkuna Zentroko Golem zinema-aretoetan**. Ekimenak **emakumeek egindako zinema** jarri du, berriro ere, erdigunean, hausnarketa sozialerako tresnatzat hartuta. Zinema-industrian iraunkorrak diren genero-desberdinkeriak salatu dira horrela, eta eskuragarri jarri hainbat testuinguru kultural eta geografikotatik datozen ikuspegi kritiko eta askotarikoak.

2024ko "Zinemagileen artean" Emakumeek egindako 14. Zine Karabanaren zabalkundea, Metro Bilbaoko geltokietan.

Foro Marta Dolado abokatuarekin, 2025eko "Zinemagileen artean" Emakumeen 14. Karabanan, Anne Garea kazetariak elkarrizketatuta, "Black box diaries" filmari buruz.

Aukeratutako **nazioarteko lan sarituen** sorta ere izan zen ikusgai. Film horietan askotariko gaiak jorratzen dira; esate baterako, Gazako genozidioa, hiri-gentrifikazioa, borroka sindikala, sexu-indarkeria, zaintza-lanen prekarizazioa eta zahartzaroko bakardadea. Erakutsitako filmen artean nabarmendu ziren *A State of Passion* (Palestina), *Faruk* (Turkia), *Union* (Estatu Batuak), *Black Box Diaries* (Japonia), *No es mi historia, es la de todas* euskal film laburra eta *My Favourite Cake* fikziozko lan irandarra. Horrenbestez, giza eskubideen eta justizia sozialaren ikuspegia indartu du Karabanak.

Emanaldien osteko elkarrizketa-foroak funtsezkoak izan dira azken edizioan, publikoaren parte-hartze aktiboa sustatu baitute. *A State of Passion* filma eskaini ondorengo solasaldian lanaren zuzendarietako batek hartu zuen parte, **Carol Mansour**rek; Leyre Otaegi nazioarteko kazetariak dinamizatu zuen hizketaldia. *Faruk* filmaren fororа **Asli Özge** zuzendaria bertaratu zen, eta **Alicia San Juan** kazetariak egin zituen moderatzaile-lanak. *Union* lanaren kasuan, KCD GGKEk aurkeztu zuen filma eta ondorengo solasaldia online egin zen **Brett Story** zuzendari kanadarrarekin.

Era berean, *Black Box Diaries* filma ikusi osteko saioan Bizkaiko indarkeria matxistaren behatokiko kide **Marta Dolado** abokatuak —zuzenbide penalean eta genero-indarkerian espezializatuta dagoenak— hartu zuen parte; **Anne Garea** kazetariak dinamizatu zuen solasaldia. Itxierako jardunaldian, *No es mi historia, es la de todas* film laburrari buruzko foroa egin zen, **Inés Herreros** kazetariaren gidaritzapean. **Itxaso Díaz** zuzendariarekin batera, solasaldian izan ziren **Etxekotu gabeko emakume langileak** elkarteko kide **Pili Gil** eta **Yolanda Hurtado**. Etxeko langileen eta zaintza-lanetan dihardutenen zaurgarritasun-egoera eta eskubideen aldeko borroka izan zituzten hizpide. Solasaldi guztietan **zeinu-hizkuntzako interpretazio-zerbitzua** eskaini zen, eta irisgarritasun-konpromisoa indartu zen horrela.

Oro har, 2025eko «Zinemagileen artean» Karabanan berretsi egin zen ekimenak **Bilboko erreferentziazko gune kultural eta pedagogiko** gisa duen eginkizuna: zinema gizartea sentsibilizatzeko eta eraldatzeko tresnatzat erabiltzea. Emakume zinemagileen ahotsak eta kontakizunak nabarmentzen laguntzeaz gain, herritarren parte-hartzea sustatu zuen, bai eta partekatutako gogoeta kritikoa ere, berdintasunaren, eskubideen eta zaintzen inguruan, KCD GGKEren balioekin eta ibilbidearekin bat etorriz.

Karabanak iraun zuen bost egunetan, 578 lagun bildu ziren guztira eguneroko hiru saioetan (17:00etako, 19:00etako eta 21:30eko emanaldietan). Saioetara bertaratu zirenen artean, 453 emakumeak izan ziren (publiko orokorraren % 68), eta 125 gizonak (% 32). Bertaratutako ikus-entzuleen % 70ek eztabaida-foroak zituzten saioetan hartu zuen parte.

Karabanari buruzko informazio gehiago: https://www.kcd-ongd.org/caravana?lang=eu

IKASLEEN KLAKETA: GIZARTE-ERALDAKETARAKO KOMUNIKAZIO-TAILERRA

Parte-hartzean oinarritutako metodologiarekin gauzatzen dira tailerrak, eta gailu mugikorrak erabilita bideo sozial laburra —hiru minutu ingurukoa— egitea proposatzen zaie parte-hartzaileei. Talde-lana eta gai komun bat zehaztea dira prozesuaren abiapuntua. Hortik aurrera, ikus-entzunezko hizkuntzaren bidez istorio bat kontatzeko askotariko moduak probatzen dituzte ikasleek.

Jardueraren balio nagusia ez datza azken produktuan bakarrik, hura lantzeko prozesuan sortzen den hausnarketa- eta eztabaida-prozesu kolektiboa ere garrantzitsua baita. Ikuspegi horrek irakasleen eta ikasleen arteko lankidetza sustatzen du, eta lagungarria da balioak barneratzeko eta askotariko errealitate sozialak —tokian tokikoak zein mundu-mailakoak— kritikotasunez ulertzeko.

2024-2025 ikasturtean antolatu zuen KCD GGKEk *Ikasleen Klaketa* tailerren azken edizioa. Horretan, alderdi teknikoa indartzen saiatu zen, aurreko urteko berrikuspen pedagogikoaren ondoren. Hala, **eskuliburu pedagogiko eta teknikoa** eguneratu zen, ikasleen interesetara eta

errealitateetara hobeto egokitu dadin; ildo horretan, adibide berriak eta datu eguneratuak gehitu dira, eta ulergarritasun didaktikoa hobetu.

2024ko abenduan ekin zitzaien tailerrak koordinatzeko lanei, esku hartzeko egutegiak elkarrekin lantzeko, eta 2025eko maiatzera arte luzatu ziren. Azken edizioan **10 ikastetxek** hartu dute parte **19 tailerretan**, eta horietatik **% 40 euskaraz** egin dira.

Tailer guztiek gidoi bera izan dute ikastetxe guztietan: **bi orduko lau saio**, eta, horien osagarri, praktika autonomoak saioen artean. Prozesu horren emaitza **ikus-entzunezko 80 pieza** izan dira, **352 ikasleren** parte-hartze aktiboarekin eginak —% 56 neskak ziren—. Lanen **% 39** euskaraz egin dira, hizkuntza- eta kultura-aniztasunarekiko konpromisoaren erakusgarri.

Azpimarragarria da ikastetxeetako irakasle-taldeen funtsezko egitekoa. Guztira **36 irakaslek** (25 emakumek eta 11 gizonek) parte-hartze aktiboa izan dute prozesuan: elkarrizketarako, hausnarketa kritikorako eta parte hartzeko guneak ahalbidetu dituzte, ikuspegi pedagogiko eraldatzailearekin bat eta giza eskubideei erreparatuta.

Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere aipagarria da **prozesu kolektiboa** dela helburu nagusia, talde bakoitzak ikus-entzunezko lan bat egitetik haratago: taldekideen artean gai garrantzitsuak identifikatzea, edukiak planifikatzea, grabaketak egitea, materialak editatzea eta

Ikasleen Klaketa tailerra ikastetxeetan, Gorka López Arantzamendi KCD GGKEko produkzio-teknikariaren eskutik.

Egindako film-laburrak



Ikasleen Klaketa 2025eko partaideak



landutakoaz gogoeta egitea. Ikuspegi horrek elkarlanean eta bizipenetan oinarritutako ikaskuntzaren aberastasuna nabarmentzen du. Ildo horretan, ikasleek oso positibotzat jotzen dute beren bizi-esperientzien arabera gaiak identifikatzeko gai izatea, askotariko hezkuntza-testuinguruetan sortzen diren beste errealitate edo oztopo batzuk ikusgarri egin eta aztertzeko aukera delakoan.

KCD GGKEn berretsi egin dugu metodologia inklusibo eta partaidetzakoen aldeko konpromisoa; hau da, artearen eta komunikazioaren bidez giza eskubideak, ekitatea eta gizarte-eraldaketa indartzera bideratuta dauden metodologien aldekoa.

Ikasleen Klaketa tailerrei buruzko informazio gehiago: https://www.kcd-ongd.org/ikasleen-klaketa?lang=eu

Itxaso Díaz y Pili Gil y Yolanda Hurtado, Trabajadoras No Domesticadas elkarteko ordezkariak, Mujeres, "Zinemagileen artean" 2025 jaialdiaren 14. edizioan parte hartu dutenak.

EMAKUMEEK EGINDAKO PARTAIDETZAKO BIDEO-TAILERRA

Bizkaian diharduen emakume migratuen erakunde batekin aurretik adostutako hitzarmena baliatu genuen, jarduera aurrera eramateko. 2024ko abenduan, erakundearekin harremanetan jarri ginen berriro, tailerraren metodologia egokitzeko eta gaia zein parte-hartzaileak aukeratzeko, besteak beste. Baina elkartearen barruko arrazoiak zirela eta, tailerraren edizio horretan ez parte hartzea erabaki zuten.

Beraz, beste emakume-talde bat bilatzeari ekin genion, eta, azkenean, Etxekotu gabeko emakume langileak (TND – Trabajadoras no domesticadas) elkartearekin jarri ginen harremanetan. Etxeko lan ordainduan ari diren edo horretan jardun duten emakumeek osatzen dute elkartea, batez ere. Askotariko emakumeak dira, migratuak eta bertakoak, gazteak eta nagusiagoak, eta sektoreko emakumeei laguntza- eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzen diete.

Egitasmoa aurkezteko eta koordinatzeko bilerak egin genituen TNDko ordezkariek, Itxaso Díazek (tailerraren bideratzaileak) eta KCD GGKEko kideek. Grabaketa-saioak planifikatzeko, kontuan hartu genuen maiatzean aurkezteko prest egon beharko zuela azken produktuak, emakumeek egindako zinemaren Karabanan erakusteko.

Azkenean, tailerrean gidoia zehaztu zuten, TNDk zabaldu nahi zuen mezua hautatuta. Itxaso arduratu zen prozesuan laguntzeaz, gidoia egiteaz, irudiak grabatzeaz eta bideoa editatzeaz.

Azken emaitza 9 minutuko film laburra izan zen, eta, bertan, etxeko langileek historian zehar bizi izan duten egoera laburbildu du TNDk, iraganeko eskaerak eta egungo errebindikazioak jasota. Lana Golem zinema-aretoetan erakutsi zuten zineforum-saio batean, Karabanaren itxiera-ekitaldian, eta aurkezpenean elkarteko kideek hartu zuten parte.

Materiala TNDri eman zaio, sentsibilizazio-kanpainetan erabil dezan.

ERAGIN- ETA KOMUNIKAZIO-EKINTZAK

2025ean, indartu egin dugu komunikazio eta eragin politiko instituzionaleko estrategia. Horretarako, bi jardunbide jarri ditugu martxan.

Alde batetik, lankide ditugun pertsonen jakintzak eta esperientziak aprobetxatuz, komunikazio-kanpaina bat egin dugu, «informazio-pilulez» osatua; horiek minutu bat eta bi minutu bitarteko ikus-entzunezko produktu laburrak dira, mezu argi eta zehatzak ematen dituztenak, gure lanean jorratzen ditugun gaiei buruz. Horrela, eskubideen defendatzaileekin eta gizarte-komunikatzaileekin ditugun harremanak baliatuz, gai hauei buruzko pilulak ekoiztu eta zabaldu ditugu: borroka eta aldarrikapen feministak, antirrazistak edo kultur aniztasunarekin loturikoak; El Salvadorreko giza eskubideen defentsa, eta Palestinako genozidioaren salaketa. Sare sozial instituzionalen bidez zabaldu dira pilula horiek; beraz, askotariko publikoarengana heldu dira eta lehen eskuko informazioa sozializatu dute, errealitatea ulertzen lagunduko diguten eta hura eraldatzera animatuko gaituzten gakoak eskaintzeko helburuarekin.

Bestalde, estrategia horrekin batera, eragin politikoko prozesu bat gauzatu da. Gaur egun gizateria jasaten ari den drama handienetako baten aurrean —Palestinako genozidioa—, KCD GGKEk horren aurkako posizionamendua eta salaketa indartu nahi izan ditu.

Maiatzean, jatorri palestinarreko Carol Mansour zinema-zuzendaria izango dugu. Lurralde okupatuetan lan egiten duten beste GGKE batzuekin koordinatuta, bilera bat antolatu genuen Eusko Legebiltzarreko *Palestina eta Ekialde Hurbila Babesteko Taldeartekoarekin*. Bilera horri esker, Sumar mugimenduak bultzatuta eta ganberako alderdi aurrerakoiek babestuta, akordio

Carol Mansour zuzendari palestinarra Eusko Legebiltzarrean izan da.

bat lortu zen Gazako genozidioa gaitzesteko eta Israelgo Estatuaren nazioarteko isolamendua eskatzeko.

Eusko Legebiltzarrak onartutako proposamenak «irmoki eta ñabardurarik gabe» gaitzetsi zuen «Israelgo Estatuak Gazako biztanleria zibil palestinarraren aurka egindako genozidioa», eta «berehalako su-eten iraunkorra, indar militarrak lurralde okupatuetatik erretiratzea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa erabat errespetatzea» eskatu zuen.

KLIKATU ZINEMA IKUSEZINA STREAMING PLATAFORMA

Zinemak, hezkuntza-baliabide gisa, askotariko aukerak eskaintzen ditu ikaskuntzari eta gizartea sentsibilizatzeari dagokienez, kontakizuna, emozioa eta analisi kritikoa uztartzeko balio baitu. Testuinguru horretan, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia erreferentzia bihurtu da ikastetxeentzat, ikus-entzunezko materiala eskaintzen baitie ikasgeletan gai sozialak lantzeko, hausnarketaren eta parte-hartzearen ikuspegitik.

Esperientzia horretatik abiatuta, KCD GGKEk eta zinema-jaialdiak **lanbide-heziketako eta batxilergoko** ikastetxeei bideratutako lan-ildo berezia jorratu ohi dute, zinema soziala tresna pedagogiko gisa erabiliz hezkuntza-lana indartzeko helburuarekin. Zinemaldiarekin lotutako emanaldien eta jardueren bidez gauzatzen da lankidetza hori, eta ikasturtean zehar ikus-entzunezko baliabideak ikastetxeei eskuragarri jartzearen bidez.

Ildo horretan, irakasleei eta ikasleei laguntzeko gune digitala da **Klikatu Zinema Ikusezina** plataforma, **ikaskuntzaren eta ezagutzaren teknologien** ikuspuntutik eratua. Teknologien erabilera arduratsu eta hezigarria sustatzea du xede, eta ikaskuntza kritikoa lehenesten du ikus-entzunezko edukien kontsumo pasiboaren aurrean.

2025ean, plataformaren katalogoan **173 film** daude, jaialdiko hainbat ediziotatik hautatutako lanak. Katalogoa ikasturte osoan dago erabilgarri, eta askotariko gaiak jorratzeko aukera ematen du, tartean jasangarritasuna, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna eta giza eskubideak. Gaur egun, **19 ikastetxe laguntzailek** dute sarbidea Klikatu Zinema Ikusezina plataformara. Aukera hori epe ertainera Euskadiko beste ikastetxe batzuetara zabaltzea da erronka nagusietako bat, betiere egitasmoaren jasangarritasun ekonomikoa ziurtatuta eta lanen zabalkunde-eskubideak errespetatuta.

IBILBIDEA SENDOTZEN DUTEN AINTZATESPENAK

Kultura Communication Desarrollo "K.C.D." GGKEk eta Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak hainbat errekonozimendu instituzional eta sozial jaso ditu beren ibilbidean zehar, kulturaren eta giza eskubideen esparruan egindako lanaren sendotasuna eta koherentzia islatzen dutenak.

Horien artean, 2025ean, Premio Bihotza Sariak nabarmendu behar da, Zinemaldiari emandakoa, istorio eraldatzaileei ahotsa emateko eta giza eskubideekiko konpromisoagatik, Bilbon, Bizkaian eta Euskadin eragin soziala duten ekimenak ezagutu dituzten sarien esparruan.

Aitorpen horiek sendotu egiten dute kultura eta komunikazioa gizartea eraldatzeko funtsezko tresna bihurtu dituen proiektua.

TXOSTEN EKONOMIKOA

KCD GGKEk gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren esparruan 2024an egin dituen jarduerak honako erakunde hauen babesa dute:

Erakundea	2025ean GAUZATZEKO
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (2024-2026 aldirako bi urteko proiektua. Guztira: 463.335,40€)	231.667,70 €
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (izenduna) *Jaialdiko Garapen Jasangarriaren saria barne*	200.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia BFA (2024ko hezkuntza-proiektua eta 2025eko jarduerak) *Giza Eskubideen saria barne*	45.000,00 €
Bilboko Udala (hitzarmena). *Genero Ekitatearen saria barne*	19.000,00 €
Getxoko Udala (kontratua). *Euskarazko lanik onenaren saria barne*	14.965,00 €
Barakaldoko Udala (kontratua). *Balio Hezkuntzaren saria barne*	10.000,00 €
Mungiako Udala (kontratua). *Film Sozialak saria barne*	7.260,00 €
Abadiñoko Udala (kontratua)	3.400,00 €
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU (hitzarmena) *Ikusezina Express saria eta Ikusleen Ikusezina Express saria barne*	2.250,00 €
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea (izenduna) *Emakume batek egindako lanik onenaren saria barne*	2.000,00 €
Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritza (kontratua) *Kulturartekotasunaren saria barne*	2.000,00 €
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua (hitzarmena) *Ikusleen saria barne*	2.000,00 €
Euskal Irrati Telebista EITB Media SAU (kontratua) *Gazteen Klaketa saria eta Ikusleen Gazteen Klaketa saria barne*	2.541,00 €
Antzuolako Udala (kontratua)	1.250,00 €
Zallako Udala (kontratua)	1.200,00 €
GUZTIRA	**529.568,70 €**

Era berean, KCD GGKEk jarraian azaltzen diren eta 2024an onartuta dauden dirulaguntza-funtsak ditu, 2025eko jarduerak egiteko. Horiei 2025eko deialdiei dagozkienak gehituko zaizkie, aurreikusita dagoenez. 2025ean honako erakunde hauen babesa du:

Erakundea	**2026ean GAUZATZEKO**
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (2024-2026 aldirako bi urteko proiektua. Guztira: 463.335,40€)	231.667,70 €
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (izenduna) *Jaialdiko Garapen Jasangarriaren saria barne*	130.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia BFA (2025ek hezkuntza-proiektua eta 2026ko jarduerak). *Giza Eskubideen saria barne*	50.000,00 €
Bilboko Udala (hitzarmena). *Genero Ekitatearen saria barne*	25.000,00 €
Getxoko Udala (kontratua). *Euskarazko lanik onenaren saria barne*	14.965,00 €
Barakaldoko Udala (kontratua). *Balio Hezkuntzaren saria barne*	10.000,00 €
Mungiako Udala (kontratua). *Film Sozialak saria barne*	6.000,00 €
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU (hitzarmena) *Ikusezina Express saria eta Ikusleen Ikusezina Express saria barne*	2.250,00 €
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea (izenduna) *Emakume batek egindako lanik onenaren saria barne*	2.000,00 €
Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritza (kontratua) *Kulturartekotasunaren saria barne*	2.000,00 €
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua (hitzarmena) *Ikusleen saria barne*	2.000,00 €
Euskal Irrati Telebista EITB Media SAU (kontratua) *Gazteen Klaketa saria eta Ikusleen Gazteen Klaketa saria barne*	2.000,00 €
Abadiñoko Udala (kontratua)	3.500,00 €
Antzuolako Udala (kontratua)	1.750,00 €
Zallako Udala (kontratua)	1.200,00 €
GUZTIRA	**484.332,70 €**

2026KO JARDUERAK

2026an proiektu horiekin jarraitzea aurreikusi da, tartean dauden erakunde eta pertsonen babesarekin eta lankidetzarekin.

Honako hauek dira 2026an egingo diren jarduera nagusiak:

- «Zinemagileen artean» emakumeek egindako zinemaren 15. Karabana, maiatzaren 25etik 29ra.
- Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko 16. Topaketa, ekainaren 1ean eta 2an.
- Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 18. Jaialdia, urriaren 15etik 22ra.
- Gizarte-eraldaketarako komunikazio-tailerrak, telefono mugikorrekin (Ikasleen Klaketa). Batxilergoko eta lanbide-heziketako 10 ikastetxetako ikasleentzat.
- EHNErekin dokumental parte-hartzailea egitea
- Giza eskubideen ikuspegia landuko duen argazki-erakusketa, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) sustatzeko.
- *Klikatu Zinema Ikusezina* streaming plataforma garatu eta eguneratzea.
- Eragin politikoa izango duten jarduerak aurrera eramatea eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko ikus-entzunezko produktuak zabaltzea, GJHak ikuspegi feministatik sustatzeko helburuarekin.

3 GARAPENERAKO LANKIDETZA-EKINTZAK ATZERRIAN

KCD GGKEn 18 urte daramatzagu Hegoalde eta Iparralde Globalen artean munduak elkarri lotzen, bestelako mundu bat posible dela pentsatzen duten erakundeak eta pertsonak uztartzen, lankidetzan eta elkarrizketan sinisten duten haiek elkartzen, beren proiektuak aurrera eramateko komunikazio- eta kultura-tresnak darabilten eragileak lotzen, garapenerako nazioarteko lankidetza helburu.

Hegoalde Globaleko herrialdeetan gauzatzen ditugun nazioarteko lankidetza-proiektuen bidez, kulturarekin, komunikazioarekin edota giza eskubideekin lotuta dauden eta genero-ikuspegia kontuan hartzen duten garapenerako prozesuei laguntzen diegu. Egiteko hori erakundeen, GGKEen eta gizarte zibileko elkarteen bidez betetzen dugu, honako hauen bidez esaterako: Habanako Historialariaren Bulegoa (Kuba), Hahatay Son Risas de Gandiol GGKEa (Senegal), Oaxacako Ojo de Agua Comunicación Indígena (Mexiko), Colectivo de Abogacía José Alvear Restrepo – CCAJAR (Kolonbia), Klaketa Árabe (Egipto) eta El Salvadorreko Equipo Maíz eta Uraren eta Nekazaritzaren aldeko Elkarte Komunitarioa (ACUA).

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO ILDO ESTRATEGIKOAK HEGOALDE GLOBALEKO HERRIALDEETAN

1) Kulturaren, komunikazioaren eta giza eskubideen arloan lan egiten duten pertsonak eta erakundeak lotuko dituzten prozesuetan laguntzea.
2) Kulturarekin, komunikazioarekin eta giza eskubideekin lotura duten garapen-proiektuak aurrera eramateko funtsak bilatzea.
3) Genero-berdintasuna eta -ekitatea eta emakumeen ahalduntzea sustatzea kulturaren, komunikazioaren eta giza eskubideen bidez.

KCD GGKEk eta Kolonbian, Kuban, Egipton, El Salvadorren, Mexikon eta Senegalen bazkide ditugun erakundeek garapenerako ekimenak eta prozesuak bultzatzen jarraitzen dugu, tokian tokiko gaitasunak indartzeko, gizarte- eta kultura-inklusioa sustatzeko eta komunitateen ongizatea areagotzeko. Eragin positiboa izan eta tokian tokiko biztanleria ahalduduko duten kultura- eta gizarte-proiektuetan lankidetzan eta jasangarritasunez jardutea da gure konpromisoa. Elkarrekin mundu ekitatibo eta bidezkoago bat eraiki nahi dugu, pertsona guztiek hazteko aukera izan dezaten.

KCD GGKEren apustua da, orobat, harremanak indartzea eta sareak sortzea garapenerako lankidetzaren eta eraldaketa sozialerako komunikazioaren eremuetan lan egiten duten erakundeen artean, guztia ere jakintzen transferentzia sortzeko.

https://www.kcd-ongd.org/cooperacion?lang=eu

MEXIKO

EMAKUMEAK ETA HERRI INDIGENAK ZINEMA ETA IRRATI KOMUNITARIOAREN II. JAIALDIA SAREAN ERAIKITZEN, BIZIMODU JASANGARRIAK MEXIKOTIK ERDIALDEKO AMERIKARAINO ZAINTZEKO

2022ko abenduan hasi eta 2025eko urtarrilean bukatu zen proiektua, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak babesten duen epe luzerako prozesu baten barruan.

Indarkeriarik gabeko bizimodu jasangarriak sustatzen dituen Ojo de Agua komunikazio komunitarioaren estrategia indartu du ekimenak, eta emakumeen, giza eskubideen alde dihardute-

nen eta herri indigenen eskubideei erreparatu die. Bizitza eta lurraldeak zaintzeko sare-lana eta komunikazio komunitarioa bultzatu ditu proiektuak Oaxacan, Mexikon eta Erdialdeko Amerikan:

- Komunikazio komunitarioa indartu da: ikus-entzunezko eta irratiko lanak ekoizteko prestakuntza eskaini zaie komunikazio komunitarioko guneei.
- Komunikazioaren bidez, borroka feministari lagundu diogu Oaxacan:
  - Indarkeria matxisten eta kapitalisten aurkako minutu bateko film laburren tailerra egin dugu Oaxacako askotariko emakumeekin.
  - Oaxacako Emakumeen Batzarreko Tejiendo Comunidad eta Lucha Antipatriarcal (AMTCLAO) erakundeen indarguneak eta sinergiak mapeatu dira.
  - Ikus-entzunezko lan laburrak ekoiztu dira AMTCLAO sare feministako bi erakunderen lana ezagutarazteko.

Ekintza horiek guztiek bat egin zuten «El lugar que habitamos – ELQH» Zinema eta Irrati Komunitarioaren II. Jaialdian, 2024ko azaroaren 14tik 22ra. Bigarren edizio horretan, entzuteko 76 lan eta ikus-entzunezko beste 206 jaso ziren, Amerikako, Europako eta Afrikako 18 herrialdetatik. Zinemako eta ikus-entzunezko 66 obra hautatu ziren, eta «Las voces que somos» erakusketan 23 lan aurkeztu ziren.

ELQH Zinema eta Irrati Komunitarioaren II. Jaialdiaren esparruan lankidetza-memoranduma sinatu zen Kolonbiako Colectiva de Comunicaciones Montes de María gizarte-mugimenduarekin, Montes de María ikus-entzunezkoen jaialdia antolatzen baitu. «Gizartea aldatzeko komunikazioa» da elkarte horren goiburua. Ildo horretan, ELQH ekitaldiak eta Kolonbiako jaialdiak lankidetzan aritu dira zinemako eta ikus-entzunezko produktuak trukatzeko eta erakusteko. 2025eko urtarrilean, hain zuzen, ELQH ekitaldiko zinema indigenaren lagina erakutsi zuten Montes de María jaialdian. Ekintza horrekin bukatu dira planifikatutako jarduerak eta formalki itxi da proiektua.

Infantzietarako ikus-entzunezko prestakuntza-prozesua. Nativitas Cuatlán komunitatea

MEXIKO

MANANTIAL DE COMUNICACIÓN COMUNITARIA (MCC): OAXACAKO PRESTAKUNTZARAKO ETA EKOIZPENERAKO GUNEA, LURRALDEA ZAINDU ETA DEFENDATZEKO ETA INDARKERIARIK GABEKO BIZIMODU JASANGARRIAK SORTZEKO EKINTZA-SARE MESOAMERRIKARRAK EHUNTZEA HELBURU DUENA

Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren 2024ko deialdian onartu zen 592.404,32 euroko dirulaguntza proiektu horretarako (aurrekontu osoa 781.842,07 eurokoa da). Ekimenaren bidez jarraipena emango zaio Ojo de Agua Comunicación (OdA) eta KCD GGKE erakundeen arteko 10 urtetik gorako lankidetzari. Ildo horretan, komunikazio komunitarioa indartuko da, funtsezko tresna baita Oaxacako komunitate indigenetan talde ahulenak ahalduntzeko. 2024ko abenduan ekin zitzaion proiektuari eta bi urteko iraupena izango du.

Proiektuaren eta OdAren ekintzaren ardatz gisa Manantial de Comunicación Comunitaria gunea sortu da, topaketarako, ikasteko, trukerako eta edukiak ekoizteko diseinatutako Oaxacako lehenengo gunea. Komunitateko komunikatzaileek eta eskubideen eta lurraldearen alde diharduten hartuko dute parte egitasmoan.

Proiektuaren bidez, lidergo komunitarioak sustatuko dira, bai eta ikus-entzunezko eta irratiko materialak autonomiaz ekoiztea ere. Indarkeriarik gabeko bizimodu jasangarriak eraikitzearen inguruan eta lurraldeen eta giza eskubideen alde sentsibilizatu eta eragitea izango da material horien xedea. 2025eko uztailean, indarkeria matxisten aurkako gazteen kanpaldia egin zen Santa María Yucuhitin, Oaxacan. Kanpaldia egin zen tokiko komunitateko eta udaleko agintariek ekimena lagundu zuten. Kanpaldiko tailerrak gazteekin batera zehaztu ziren. Herri-hezkuntzaren ikuspegia eta indarkeria matxistaren inguruko gaiekiko sentsibilitatea lantzeko bideratzaileak eta tailer-arduradunak aukeratu ziren. Indarkeria digitalak, ezkongai-harremanak eta norbere zaintza izan ziren kanpaldirako aukeratutako gai nagusiak. Gazteek sortutako 4 artelan aurkeztu zitzaizkion komunitateari (rap-abestia, irratsaioa, antzezlana eta argazki-erakusketa), bai eta tailerreko parte-hartzaileek egindako bi lan ere (rap-kontzertua eta antzezlana). Komunikaziorako ikus-entzunezko produktu horiek Oaxacako estatuko gazteen eta gizarte-taldeen artean ari dira zabaltzen.

Infantzietarako ikus-entzunezko prestakuntza-prozesua. Teotitlango komunitatea

KOLONBIA

EMAKUMEEN ETA HERRI INDIGENEN DEFENDATZAILEEN ESKUBIDEEN ALDE LANEAN

2015etik, KCD GGKEk lankidetzan dihardu Kolonbiako Colectivo de Abogados y Abogadas José Alvear Restrepo (CAJAR) abokatu-taldearekin. CAJARek inpunitatearen aurka borrokatzen du, eta lurraldearen defentsaren, justizia sozialaren eta bake iraunkorra eraikitzearen alde dihardu. Justiziarako sarbidea eta erreparazio osoa bultzatzen ditu gatazkaren biktimentzat, lider sozialentzat eta indarkeria politiko, sozial, generoko eta ingurumenekoa jasan dituzten eskubide-defendatzaileentzat, emakume-taldeei eta komunitate indigenei arreta berezia eskainita.

Aliantza hori indartu egin da 2025ean, bileren, topaketen eta CAJAReko ordezkariek Euskal Herrira egindako bisiten bidez. Gune horietan, lankidetza-prozesuak indartu egin dira eta etorkizuneko proiektuetarako baterako ekintza-ildoa zehaztu da: justizia eta erreparazio osoa lortzeko bidean aurrera egitea Kolonbian. Herrialde horretan bakea eraikitzen laguntzea da xedea, eta, horretarako, justiziarako sarbidea eta erreparazio osoa bultzatzea gatazkaren biktimentzat, lider sozialentzat eta indarkeria politiko, sozial, generoko eta ingurumenekoa jasan dituzten eskubide-defendatzaileentzat. Ekintza-ildo horretan funtsezkoa da emakumeen, indigenen eta biktimen prozesuen antolaketa indartzea eta komunikazio soziala erabiltzea gizartea eraldatzeko tresna gisa.

KUBA

HABANAKO HIRIGUNE HISTORIKOKO AFRIKAR ONDORENGO EMAKUMEEN GIZARTERATZE SOZIOKULTURALA SUSTATZEN, KULTURA-ONDAREAREN KUDEAKETAREN BIDEZ ETA GENERO-IKUSPEGIAREKIN

Proiektua Bilboko Udalak emandako 70.000 euroko dirulaguntzarekin gauzatu da. 2025ean lortu dira emaitza nagusiak, eta egitasmoa hiru hilabetez luzatu da, 2026ko otsailera arte.

Proiektuari esker, Habanako Historialariaren Bulegoko Casa de África museoko ondare-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea lortu zen 2025ean, eta horrek diskurtso museologikoa eta kultura-programazioa eraldatu zituen. Genero-ikuspegia kontuan hartzen duen museo-areto berria jarri zen martxan, talde teknikoarentzako tresna metodologikoak garatu ziren, eta afri-

Kultura afrokubatarraren ondarearen kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko ikastaroko partaideak.

kar jatorriko familietako emakumeek Kubako historian bete duten lekuari eta protagonismoari buruzko edukiak gehitu ziren. Horri esker, aurrera egin da ondare-kontakizun inklusibo, kritiko eta eskubide-ikuspegiarekiko koherenteagoa lortzeko bidean.

Irismenari erreparatuta, aurreikusitako adierazleak gainditu ziren: 750 lagun inguruk (horietatik % 72,3 emakumeak) hartu zuten parte Casa de Áfricatik sustatutako zientziaren, kulturaren eta hezkuntzaren arloko ekintzetan. Afrikar jatorriko familietako emakumeek Kubako kultura-ondareari egin dioten ekarpenari buruzko ezagutza indartu zen horrela. Era berean, herrialdean bizi diren afrikar jatorriko 40 emakume ekintzaile eta sortzailek baino gehiagok beren kultura-proiektuak ezagutarazi eta sustatu zituzten museoaren programazioaren barruan, eta, horrela, bertan duten ospea indartu. Argazkilaritza, perkusioa, sukaldaritza eta podcasten ekoizpena lantzeko prestakuntza-tailerrak lagungarriak izan ziren gaitasun teknikoak eta adierazpenezkoak sendotzeko, eta, gainera, parte-hartzaile bakoitzaren eta taldearen ahalduntzea indartu zuten.

Era berean, afrikar ondorengo emakumeek historia eta kultura afrokubatarrean izan duten egitekoa nabarmentzeko komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategia ere bultzatu zuen proiektuak. Ikus-entzunezko kanpainak, sare sozialetakoak, zinema- eta eztabaida-saioak eta nazioarteko adituen mintegia baliatuz, generoari, ondareari eta afroidentitateei buruzko hausnarketa kritikorako guneak sortu ziren. Komunikazio-ekintzek 200 hartzaile baino gehiago izan zituztenez, adierazleetan aurreikusitako sentsibilizazio-ehunekoak gainditu ziren. Ekintzoi esker, afrikar ondorengo emakumeen ikusgarritasuna handitzeaz gain, memoria historikoari eta ekitateari buruzko elkarrizketa sustatu zen, bai belaunaldien artean eta bai komunitate barruan ere.

KUBA

HABANAKO HIRIGUNE HISTORIKOAN KULTURA GIZARTE-ERALDAKETARAKO TRESNA GISA SUSTATZEN, GENEROAREN, PARTAIDETZAREN ETA INGURUMEN-JASANGARRITASUNAREN IKUSPEGITIK

2024ko abendutik gauzatzen ari den proiektuan aurrerapauso garrantzitsu eta sendoak eman dira 2025. urtean, Habanako Historialariaren Bulegoko ondare-kudeaketan genero-ikuspegia zeharka txertatzeari dagokionez, eta baita kultura- eta sormen-industria indartzeko bidean ere,

OHCHko espezialistak Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren 17. Jaialdiaren inaugurazio-galan.

emakumeak ahalduntzea eta gazteen parte-hartzea sustatze aldera. Urtea bukatzerako, Habanako Historialariaren Bulegoko 7 kultura-erakunderen eta tokiko garapenerako proiektu baten bidez 15 ekintza soziokultural bideratu ziren, ondarearen arloan eta kultura- eta sormen-industrietan genero-arrakalak txikitzeko. Ondorioz, % 50ean bete zen aurreikusitako adierazlea.

Habana Zaharreko Emakumeen Lankidetza Sarea finkatzea izan zen aldi horretako lorpenik garrantzitsuenetako bat. Gaur egun, 72 emakume —kultura-kudeatzaileak, ekintzaileak eta komunitateko liderrak— biltzen ditu sareak, eta emakumezkoak buru dituzten kultura-ekimenak antolatzeko, prestatzeko eta ageriko egiteko gune bihurtu da. Aldi berean, Gizarte Zientzien Fakultatearekin (FLACSO-Kuba) batera, aurrerapausoak eman ziren egoera zaurgarrian dauden emakume gazteei buruzko partaidetzako diagnostikoa diseinatzen, eta, gainera, kulturaren arloko diskriminazioaz eta laneko jazarpenaz sentsibilizatzeko ekintzak egin ziren, batez ere sektoreko emakumeen parte-hartzearekin. Prestakuntzaren eta sormenaren arloan, egonaldi artistikoak, nerabeentzako tailerrak eta esperimentazio eszenikorako eta ikus-entzunezkorako espazioak sustatu ziren, betiere generoaren eta ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegiak kontuan hartuta. 2025ean 76 nerabek (% 60 emakumezkoak) hartu zuten parte prestakuntza-prozesuetan, eta 12 kultura- eta komunikazio-produktu sortu ziren, genero-berdintasunaren, ondare-babesaren eta ingurumen-zaintzaren inguruan sentsibilizatzeko xedearekin. Ildo beretik, 65 emakume sortzaile eta ekintzailek beren sormen-produktuak indartu eta sustatu zituzten Habanako Historialariaren Bulegoko kultura-programazioaren bidez eta proiektuak bultzatutako espazio berriei esker.

2025eko urrian, Habanako Historialariaren Bulegoko profesional-talde bat —kultura-kudeaketan, haur, nerabe eta gazteekin lanean eta ikus-entzunezko komunikazioan diharduena— Bilbon izan zen, truke tekniko eta kulturalerako misioan. Bertatik bertara ezagutu zuten KCD GGKEk urtero antolatzen duen «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Jaialdia, eta baita horren esparruan antolatzen diren jarduerak ere, euskal institutuetako ikasleekin egiten diren trukeak, adibidez. Esperientzia horri esker, Habanako hirigune historikoan ere balia daitezkeen tresnak, ekimenak eta metodologiak identifikatu ziren, batez ere Habana Zaharreko komunitateari eta hiriko beste alde batzuetako herritarrei begira Habanako Historialariaren Bulegoak gizartea eraldatzeko egiten dituen sentsibilizazio- eta komunikazio-jarduerak.

Azkenik, genero-ikuspegia duen komunikazio-estrategia bat ezartzeko urratsak eman zituen proiektuak. Ildo horretan, azpimarragarria da Habana Cultural web-ataria martxan jarri izana, bai eta genero-ekitatearen eta jasangarritasunaren inguruan egindako jarduerak eta ekitaldiak, 484 lagun sentsibilizatzea (% 60 emakumeak) lortu baitzen. Oro har, 2025eko emaitzetan ageriokoa da erakundeen eta komunitatearen eraldaketa-prozesua aurrera doala pixkanaka. Ondarea, sormen artistikoa, gazteen parte-hartzea eta emakumeen ahalduntzea ardatz estrategikotzat hartuz, Habana Zaharraren kultura-garapen inklusibo eta jasangarriagoa lortu nahi ditu.

Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren finantzaketarekin ari da gauzatzen proiektua, 600.000 euroko dirulaguntza bideratu baitu egitasmora (aurrekontu osoa 754.098,38 eurokoa da).

KUBA

HABANA ZAHARREKO ERDIGUNE HISTORIKOA: HIRIGINTZA EKOLOGIKOA ONDAREAREN BIRGAITZEAN TXERTATZEKO BIDEAN

2025eko otsailean ekin zitzaion, formalki, proiektuari, eta lehen fasea osatu zen, plangintza teknikoa, antolamendu instituzionala eta ekipamendua zein materialak eraiki eta estrategikoki eskuratzeko prozesuen hasiera, prestakuntzarako, sentsibilizaziorako eta trukerako aurreikusitako jarduerak martxan jartzeko.

Aldi horretan, indartu egin zen Habanako Historialariaren Bulegoaren, Fundación Antonio Núñez Jiménez de la Naturaleza y el Hombre (FANJ) fundazioaren eta KCD GGKEren arteko koordinazioa, eta FANJren egoitzan Arkitektura Jasangarriaren Erakusketa Zentroa ezartzeko esparru operatiboa finkatu.

Aurrerapauso garrantzitsuak egin ziren eraikinaren 1. blokea eraikitzeko proiektu tekniko betearazlearen lanketan eta eraikuntza-lanen hasieran, espezialitate zibiletik hasita, eta obren jarraipena egiteko sistema erabaki zen. Aldi berean, lizitazio-prozesuak aktibatu eta eraikinaren jasangarritasuna bermatzeko funtsezkoak diren ekipamenduak eskuratu ziren.

Ingurumenari buruzko sentsibilizazio-estrategiari ekin zitzaion, Habana Zaharreko ekimen jasangarrien maparen inguruko lehenengo tailerra antolatuz. Tokian tokiko ekintzaileak, ingurumen-espezialistak eta erakunde publikoak bildu zituen, eta lehen pausoa izan zen ekonomia berdea, ondarea eta bidezko trantsizio ekologikoa uztartzeko. Oro har, proiektuaren egitura abian jartzeko urtea izan da 2025a. Oinarri tekniko, instituzional eta logistikoak ezarri dira, hurrengo faseetan hirigintza ekologikoaren eredua erabat ezartzeko Habana Zaharreko hiriguneko ondarea zaharberritzean.

Ekimenak 667.580 euroko aurrekontua du, eta horietatik 600.000 euro Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak finantzatu ditu.

KUBA

AHALDUNTZEA: HABANA ZAHARREKO SORMEN-INDUSTRIETAN EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEN, KULTURA-GARAPEN BIDEZKOAGOA ETA JASANGARRIAGOA LORTZEKO

2025eko abenduan ekin zaio proiektuari, eta Habanako hirigune historikoko kultura- eta sormen-industrietan genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntze ekonomikoa sustatzea du helburu, 5. GJHaren ildotik eta, bereziki, 5.5. xedearekin bat, zeinak bizitza ekonomiko eta publikoan emakumeen erabateko eta benetako parte-hartzea defendatzen duen.

Ildo beretik, herrialdeko emakume ekintzaileen eta kultura-kudeaketan dihardutenen gaitasun tekniko, antolakuntzako eta estrategikoak indartzea du xede espezifiko, kultura-ekimenen kudeaketa, jasangarritasuna eta ikusgarritasuna hobetzearren tokiko sormen-ekosisteman haien lidergoa sustatuta. Horretarako, proposatzen da parte-hatzean oinarritutako prestakuntza-prozesuak bateratzea, laguntza-sareak sortzea eta kultura-erakundeekiko eta tokiko garapen-eragileekiko aliantza estrategikoak adostea.

Aurreikusten diren emaitzen artean dago, lehenik eta behin, kultura-proiektuak genero-ikuspegiaren eta ingurumen-jasangarritasunaren arabera kudeatzeko gaitasunak indartzea, eta, horretarako, prestakuntzaren, informazioaren eta baliabideen eskuragarritasunean dauden arrakalak murriztea. Bigarrenik, emakume sortzaileen eta kultura-ekimenen arteko harremanetarako eta lankidetzarako guneak finkatu nahi dira, produkzio-kateak eta sustapen-aukerak bultzatze aldera. Azkenik, proiektuaren asmoen artean dago, halaber, emakumeek herrialdeko kultura- eta sormen-industrietan egiten duten ekarpena nabarmentzea eta lan horren aintzatespen soziala areagotzea, emakumeon ahalduntze ekonomikorako baldintzak eta tokian tokiko kultura-erabakietan duten parte hartzea hobetzearen bidez.

Bilboko Udalak emandako 70.000,00 euroko finantzaketa du ekimenak. Formalki 2025aren bukaeran hasitako egitasmoa denez, ekitaldian ez da emaitza nabarmenik jaso oraindik. Aldi horretan, plangintza operatiboa egin da, Habanako Historialariaren Bulegoarekiko koordinazioa landu eta 2026rako aurreikusitako ekintzak prestatzeaz gainera.

SENEGAL

SAINT LOUISEKO (SENEGAL) ONDAREA SUSTATZEA, KOMUNITATEAREN PARTAIDETZAREKIN, GENERO-EKITATEAREKIN ETA HEGOALDE-HEGOALDE MAILAKO ESPERIENTZIAK TRUKATUZ

Proiektuak hiru urteko iraupena izango du (2023ko abendutik 2026ko azarora), eta Bilboko Udalaren babesa du, zeinak 210.000 euroko ekarpena egin duen. Ikuspegi berritzailea du, parte-hartze komunitarioan eta Hegoalde-Hegoalde lankidetzan oinarritutakoa. Saint Louis, Habana eta Bilbo lotzen ditu, genero-ekitatea kontuan hartzen duen kultura-ondarearen sustapenean.

2025ean, proiektua nabarmen sendotu da alderdi instituzional, kultural eta sozialetik, Saint-Louis eskualdean. Garapen-bulegoa (Ndar Weesul zentroa) indartu egin da eta erreferentziazko gune bilakatu da, ondarea, kultura eta komunikazioa genero-ikuspegiaren eta ingurumen-jasangarritasunaren arabera sustatzeko. Zentroan askotariko egitaraua eskaini da: erakusketak, egoitza artistikoak, prestakuntza-saioak, kontzertuak, elkarrizketa komunitarioak eta ingurumenaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak. 2025ean 1.500 lagunek baino gehiagok hartu dute parte jarduerotan.

Lankidetza instituzional estua finkatu da Gobernazioarekin, Prefekturarekin, Kulturako Eskualdeko Zuzendaritzarekin, Ondare Zuzendaritzarekin, Gaston Berger unibertsitatearekin, Turismoa Sustatzeko Agentziarekin eta emakumeen, artisten eta kultura-taldeen hainbat elkarterekin. Antolaketa horri esker, gizarte-kohesiorako, ekitaterako eta lurralde-garapenerako eragile bihurtu da kultura. Proiektuak eragin positiboa sortzeko ahalmena duela ikusi da, Ndar Weesul zentroa kultura-kudeaketako eredu berritzaile eta inklusibo bilakatu baita; izan ere, Saint-Louisen eraldaketa jasangarri eta ekitatiboa sustatzen du.

Liburuaren aurkezpenaren jarduera Ndar Weesul-en

Zoudiba Fall-en "Emakumeen arteko elkarrizketak" liburuaren aurkezpenaren kartela

2025eko urtarrilean Afroamerikako Gizarte eta Kultura Antropologiako Nazioarteko XXIX. Mintegia egin zen Casa de África museoan. Urtarrilaren 5etik 10era, herrialdeko eta nazioarteko akademikoek egindako ikerlanei buruzko azalpen-panelak erakutsi ziren. Medikuntzaren, antropologiaren, historiaren, hizkuntzalaritzaren eta artearen eremuetako lanak dira, besteak beste, eta ikuspegi afrokubatarra dute oinarri. Emakume kubatarrek eta afrikar jatorriko familiakoek garai kolonialetik gaur egunera arte izan duten egitekoa nabarmendu zuten mintegian. Panelen aurkezleen eta entzuleen artean 100 lagunek hartu zuten parte ekitaldian, horietatik % 60 emakumeak, % 58 gizonak eta % 2 ez-bitarrak.

EGIPTO, LIBANO ETA EUSKAL HERRIA

KOMUNIKAZIOA, ELKARTASUN-SAREAK FINKATZEA ETA GENERO-BERDINTASUNAREN, GIZA ESKUBIDEEN, KULTURARTEKOTASUNAREN ETA BIZITZA-JASANGARRITASUNAREN ALDEKO EMAKUME ZINEMAGILEEN GAITASUNAK INDARTZEA. EGIPTOTIK MUNDURA

Urtebetean (2024ko abendutik 2025eko abendura) gauzatzeko proiektu hori Klaketa Árabe tokiko bazkidearekin gauzatu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin; horrek 120.000 euroko dirulaguntza eman zuen, 155.543,28 euroko aurrekontu osoari laguntzeko.

Epe horretan, trebatzeko, sortzeko, erakusteko eta nazioartean antolatzeko prozesu integral bat finkatu zen, arabiar munduko emakume zinemagileei begira.

Trebakuntzaren arloan, zinemagileen gaitasun profesionalak indartu ziren Egipton eta Libanon egindako tailer espezializatuetan eta «Zinemagileen artean» laborategiaren bidez. Azken ekimen horretan mentoretza eskaini zitzaien eskualdeko zenbait herrialdetako dokumental-proiekturi. Aldi berean, laguntza eskaini zitzaien ingurumenaren aldeko ikus-entzunezko ekimenei, eta jasangarritasuna eta zinema-sorkuntza uztartu ziren gizartean eragiteko tresna gisa.

Erakustaldien eta sentsibilizazioaren arloetan, «Zinemagileen artean» Karabanak askotariko publikoa bildu zuen bai Kairon eta bai Bilbon ere, eta genero-berdintasunaz, giza eskubideez eta justizia sozialaz hitz egiteko espazioak sortu zituen. Era berean, urratsak egin ziren «Zinemagileen artean Hezkuntza» hezkuntza-programa martxan jartzeko eta sarearen plataforma digitala aktibatzeko asmoetan, eta, horri esker, emakumeek egindako lanen ikusgarritasuna zabaldu zen nazioartean.

Oro har, proiektua oso lagungarria izan da emakume zinemagile arabiarren ahalduntze profesionalerako, nazioz gaindiko elkartasun-sareak finkatzeko eta zinema tresna eraldatzaile gisa erabiltzeko, xede argiarekin: genero-berdintasuna sustatzea, giza eskubideak bultzatzea eta bizitza jasangarri egitea, gatazkak, zentsura eta egiturazko desberdinkeriak nabariak diren testuinguruetan.

EGIPTO, LIBANO ETA EUSKAL HERRIA

EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ZINEMAREN INDUSTRIAN; HORRETARAKO, GENERO-EKITATEA, GIZA ESKUBIDEAK, BIZITZA-JASANGARRITASUNA ETA KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEA, ETA EGIPTOTIK MUNDURA SAREAK INDARTZEA

Klaketa Árabe gure bazkidearekin batera gauzatutako proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak onartu zuen 2025eko deialdian, eta 120.000 euroko dirulaguntza jaso du (ekimenaren aurrekontu osoa).

